

Azpeitian herritarrek jasotzen duten euskarazko eskaintza %70ekoa da

Azpeitia Eskaintza altua den arren, Azpeitiko euskararen ezagutzaren eta kale erabileraren azpitik dago

NEREA URANGA

Soziolinguistika Klusterrak Azpeitiko euskarazko eskaintza zenbaterikoa den neurtu du. Atzo ikerketaren emaitzen berri eman zuten Ana Mendizabal Euskara zinegotziak eta Olatz Altuna Solioliolinguistika Klusterreko Euskaini ikerketaren zuzendariak. Jasotako datuen arabera, azpeitiarrek jasotzen duten euskarazko eskaintza 1etik 0,7koa da; hau da, %70ekoa.

Euskaini adierazleak euskarazko eskaintzari buruz jasotako in-

formazioa sektoreka eta komunikazio-motaren arabera sailkatuta eskaintzen du. Eta herrian elkarteek, enpresek eta taldeek herritarrekin komunikatzeko erabiltzen duten errotulazio bidezko, ahozko eta idatzizko hizkuntza neurtzen ditu.

Euskararen eskaintza aztertze-ko herriko 544 erakunde, enpresa eta talde ikertu ditu, eta 3.997 elementu edo komunikazio bide jaso.

Hori hala, «Azpeitian euskarazko eskaintza altua da, baina euskarazko ezagutzaren eta erabileraren azpitik dago», nabarmendu du Euskara zinegotziak.

Sektoreka, berriz, Gizarte alorra da eskaintza gehienbat euskaraz egiten duena, %95a, hain zuzen. Horren atzetik Administrazioa legoke, %86ko eskaintzarekin. Euskarazko eskaintza gutxienez heda-



Ana Mendizabal eta Olatz Altuna atzo ikerketako datuak aurkezten. N. URANGA

bideek egiten dute, %29a. Kasu horretan, kanpoko hedabideek euskarazko eduki gutxi izateak zeresan handia du.

Ekonomia sektorearen baitako enpresak dira publikitate egitean euskara gutxien baliatzen dutenak: eskaintzaren %12a baino ez da euskaraz. Bi etxetan jasotako publikitatearen hizkuntza aztertu

dute ondorio hori ateratzeko. Komunikazio motari dagokionez, euskarazko eskaintza ahozko hizkuntzan ematen da gehien: %91a. Baxuena, berriz, idatzizkoan: %57.

Azpeitian euskararen eskaintzari buruzko ikerketa lau urtean behin egitea erabaki du Euskara Mahaiak, «ondoren datuak alde-eratzeko aukera izateko».

» EUSKAINI EUSKARAREN ESKAINTZA AZPEITIAN

■ **Azpeitiko neurketa.** Herrian euskararen eskaintzaren neurketa iaz egin zuen Soziolinguistika Klusterrak. Euskaini adierazlea kontutan hartuta, Azpeitian euskararen eskaintza 1 indizea kontutan hartuta 0,7koa da.

- Neurketa egiteko 544 erakunde, enpresa eta talde ikertu dituzte.

- 3.997 elementu edo komunikazio bide jaso dituzte.

- Sei sektoretan banatuta egin dute ikerketa: Administrazioa (Udala eta Udal Elkarteak; Forala eta Autonomikoa; Estatukoak; eta, Justizia administrazioa), Ekono-

mia (enpresak; merkataritza eta zerbitzuak; eta, publikitatea), Gizarte (kirola; kultura, aisia, erlijioa eta elkarte gastronomikoak; eta, alderdi politikoak, sindikatuak eta mugimenduak), Hedabideak (bertakoak eta kanpokoak), Hezkuntza (arautua eta ez arautua) eta Osasungintza (publikoa eta pribatua).

■ **Euskararen ezagutza eta kale erabilera altuagoak.** Euskararen eskaintza (%70) baino altuagoak dira Azpeitian euskararen ezagutza (%85) eta kale erabilera (%86).

■ **Gizarte sektorean euskara eskaintza altuena: %95.** Sektoreka Gizarte sektorean euskarazko eskaintza altuena ematen da, %95; Administrazioan, %86; Hezkuntzan %82; Osasungintzan, %78; Ekonomian, %70; eta, Hedabideen sektorean, %29.

■ **Hedabideen sektorean eskaintza baxuena: %29.** Hemen eragin nabarmena kanpoko hedabideen euskararen eskaintzak du. Bertako hedabideen artean bost aztertu dituzte Erlo Telebista, Azpeitian Zer?, Azpeitia Eginez, Uztarría eta UROLA KOSTAKO HITZA. Horietan,

euskarazko eskaintza %100 da.

■ **Komunikazio motaren arabera eskaintza.**

- Ahoz eskaintzen den hizkuntza euskara da, kasueetatik %91. «Altua da, beste herrietan ez dugu horrelakorik jaso, honetan euskaraz jarduteko gaitasunak eta erabilerak zerikusia du», esan dute ikerketaren arduradunek.

- Idatzizko komunikazioan ematen da datu baxuena, %57a. Kasu honetan, paperean edo euskarri elektronikoen sortutako idatzizko dokumentuen hizkuntza ikertu dituzte.

Harpidedun egiten bazara aisialdirako bonu bat opari

Eroski Bidaiak eta Baskinbox etxean eskutik.

40 eskaintzatik gora aukeratzeko Euskal Herrian zehar.



Hotel bateko egonaldi bat, 2 lagunentzako bazkari bat edo abentura eta kirol ekitaldi bat izango duzu aukeran.

HARPIDETZARABO
943-30 43 45 • harpidetza@berria.info

berria

Uztailaren 15ean
Tenerifeko astebeteko egonaldia
zotz egingo dugu BERRIAREN
harpidedunen artean,
Eroski Bidaiak-en eskutik.



Orain, beste arazoi bat BERRIAREN harpidedun izateko.

EROSKI

AUSERA EZAZUL

berria



H1!ek lurralde batzarra egin du

ZESTOA Hamaikabat alderdiak Gipuzkoako Lurralde Batzarra egin zuen herenegun, Zestoan. Urola Erdian egiten duten lehen Lurralde Batzarrean Hamaikabateko foru diputatu Pello Gonzalez, Iñaki Galdos, Maite Etxaniz eta Jose Ramon Guridi, eta Gipuzkoako Batzar Nagusietako bozeramaile Joxan Rekondok parte hartu zuten, bailarako exekutibako hainbat kiderekin batera. Aurkezpenaren harira, bailarako koordinatzaile Jabier Beobide azpeitiarrak Hamaikabat «alderdi gaztea» dela eta «abertzaletasun demokratikoaren baloreetan oinarrituta, gaur egungo arazoei konponbide berriak eskaintzera» datorrela nabarmendu zuen.

HAMAİKABAT

Laburrak

Aldi baterako zortzi lanpostu eskaini dituzte

AZPEITIA Espainiako Enplegu Zerbitzu Publikoaren eta Toki Korporazioen arteko lankidetzak hitzarmen baten bidez, aldi baterako zortzi lanpostu eskaini ditu Udalak; hiru lorezain, hiru igeltsero eta bi margolari. Lana ekainean hasi eta lau hilabetez luzatuko da. Izena eman edota informazio gehiago eskuratzeko www.redtrabajo.es webgunean sartu beharko da astelehenera aurrera, eta izena emateko azken eguna, berriz, maiatzaren 31 da. Bestetik, udan turismoko informazio gunean lan egiteko pertsona bat behar du Udalak. Lana abuztuaren 3tik irailaren 2ra artean da eta izena ekainaren 30a arte eman daiteke www.redtrabajo.es webgunean.

Sare sozialen inguruko hitzaldia, Urola Ikastolan

AZPEITIA Urola Ikastolako Zutoin Guraso Elkarteak sare sozialen inguruko hitzaldia antolatu du DBH-ko eta Batxilergoko ikasleen gurasoentzako. Hitzaldia, astelehenera da, 18:00etan, Urola Ikastolako erabilera anitzeko gelan. Hizlari, Esther Martinez ariko da.

Txotxongiloak izango dira bihar, Urrestillan

AZPEITIA Txiki Biran egitasmoaren baitan, haurrei zuzendutako, Kixka taldearen Zuri beltz antzerki eta txotxongilo emanaldia izango da bihar, 12:30ean, Urrestillan.

Kirol monitoreak kontratatze deia

ZESTOA Zestoako Ekain Guraso Elkarteak 2010/2011 ikasturterako kirol monitoreak kontratatze deialdia ireki du. Eskola kirola koordinatzea izango da bere lana, Herri Eskola eta Kiroldegiko arduradunekin lana eginez eta larunbat goizetan umeekin partidetara joanez. Betebeharreko baldintzak 18 urte beteta izatea eta euskara menperatzea da. Eskatzaileek curriculum Zestoako Herri Eskolan (Txomini emanez) utzi beharko dute ekainaren 2a baino lehen.

Agiri bihar Zezen Bidea egiten hasiko da

ZESTOA Agiri Mendi Taldeak beste mendi zeharkaldi bat antolatu du. Oraingo honetan Zezen Bidea izeneko zeharkaldia egingo dute, Noainen (Nafarroa) hasi eta Azpeitian bukatuz. Zeharkaldia hiru etapatan egiteko asmoa dute Agirokoek. Biharko antolatu dute lehen etapa. Hala, egun-pasa antolatu dute biharko, 07:00etan, Gurutzetik autobusez irtenda. Lehenengo etapan egingo duten mendi ibilbidea 35 kilometrokoa izango da, Noainetik hasi eta Beramendrainokoa.